

## INFORMAZIO ORRIA

### Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea sustatzeko programa

**XEDEA:** Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea sustatzeko programako diru laguntzak jarduera alor hauetan:

**II. ERANSKINA: Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna indartzea sustatzea.** Enpresa sarearen lehiakortasuna sustatzea izaera estrategikoa eta inpaktua duten jardueren bitartez, produktu, zerbitzu, prozesu, antolaketa, eta negozio ereduak bereizten eta balioesten laguntzeko. (**ERALGIP**)

**III. ERANSKINA: Enpresa jardueraren jarraipena sustatzea.** Enpresa jardueraren jarraipena eta sustraitzea sustatzea testuinguru egoki bat sortuz eta garatuz, enpresa transmisioa ahalbidetzeko tresnak eta esparruak sortuko dituen, eta enpresak transmititzeko formulak babestu tea euskarria emango diena. (**JARRAIPENA**)

**IV. ERANSKINA: Enpresen arteko lankidetzarako dinamikak egituratzea.** Gaitasun lehiakorrak bultzatzea enpresen arteko lankidetzaren bitartez, proiektu jakin batzuk eta enpresa aukera berriak garatzeko dimentsio egokia lortzeko. (**ELKARLANA**)

**V. ERANSKINA: Ekonomia zirkularra enpresa jardueraren balio kate osoan integratzea.** Gipuzkoako enpresa sarean onuragarria izango den testuinguru bat sustatzea, baliagarria izango dena balio sortzeko, enpresak eraldatzeko eta ikuspuntu sistemikoa eta partekatua garatzeko, betiere ekonomia zirkularraren ikuspegitik. (**EKONOMIA ZIRKULARRA**)

**VI. ERANSKINA: Ekonomia sortzailea balioestea.** Ekonomia sortzaileak eraldatzek orduen balio sustatzea aukera ta balio erantsiko esparruak sortzeko eta garatzen laguntzeko. (**EKONOMIA SORTZAILEA**)

#### DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.

Langile-kostuak direnean, proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Barruko langileen kostuak hauek izango dira:

- Enpresa-esperimentazioko proiektuetan, barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 20a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 €/ordu izango da.
- Hainbat proiektutan -ikerketak, analisiak eta azterketak, laguntza tresnak sortzea - barruko langileen kostuak hautagarriak izango dira, gehienez 69,29 €/ordu izan arte.
- Xedetzat kontzientziazioa eta sentsibilizazioa eta dinamizazio ekintzak garatzea duten proiektuetan, barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 30a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 €/ordu izango da.
- VI. eranskinean zehaztutako proiektuetan, barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 50a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 €/ordu izango da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/ordu gehienez.

Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango, salbu eta hainbat proiektu –ikerketak, analisiak eta azterketak, laguntza tresnak sortzea, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, dinamikak ezartzea...– eta erabaki honetako VI. eranskinean zehaztutako ekintzak; horietan, zeharkako kostu gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.

### **DIRU LAGUNTZEN PORTZENTAJEAK ETA GEHIENEO ZENBATEKOAK:**

Diru laguntzak kostu hautagarrien %75a izango dira, salbu eta ikerketak, analisiak, azterketak eta laguntza tresnak sortzea eta adimen lehiakorraren esparruan kontzientziazioa eta sentsibilizazioa areagotzera xedatutako jardueretarako laguntzak %100ekoak izango baitira.

### **ESKERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA:**

Eskaerak proiektu bat edo bat baino gehiago bil ditzakete eta eskaerak aurkezteko epea **2018ko ekainaren 26an amaituko da** eguerdiko 12:00tan.

Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaeraren inprimakiak eskuragarri egongo dira Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreka Departamentuaren web orrian nahi duenarentzat: <http://sustapena.gipuzkoa.eus>

Eskaera orria eta dokumentazioa, ahal bada, bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoko bidez aurkeztuko dira, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreka Departamentuaren honako web orri honen bitartez: <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>